



## PRENTSA OHARRA

---

### **EHNEK TTIP eta CETA akordioen aurkako manifestazioetan parte hartzeko deia luzatu du**

***-Elikagaien ekoizpenean zein elikadura segurtasunean erabateko kaltea eragin dezakete bi akordioek***

**Gasteiz, 2016-11-03.** Larunbata, azaroak 5, Hego Euskal Herriko hiriburuetan TTIP eta CETA akordioen aurka egingo diren manifestazioen deialdiarekin bat egin du EHNE sindikatuak. Hala Euskal Herriko eskubide sozialen kartak zein herrialde bakoitzeko plataformek egindako deialdiarekin bat egin du sindikatuak. EHNEk bere kideei zein gizarteari larunbat goizean zein arratsaldean burutuko diren ekintzetan parte hartzeko deia zabaldu die.

Berriki sinatu den CETA akordioak zein Europako Batasuna eta Amerikar Estatu Batuak adosten ari diren TTIP nazioarteko merkataritza itunek kalte larriak eragingo dituzte gizarteko zenbait arloetan. Nekazaritza eta abeltzaintzari dagokionean itunek elikagaien segurtasunean erabateko galerak eragingo ditu, hala, transgenikoek, kloratutako haragiek, berme sanitariorik gabeko elikagaiek, zein ingurumena kaltetzen duten zenbait ekintzek ateak parez pare zabalik izango dituzte. (Hurrengo orrian sektorean eragiten dituen kalteen informazioa).

Guzti honen aurrean, EHNEk berriz ere dei egiten die baserritarrei manifestazioetan parte hartu dezaten.

## **-Akordioen eragina nekazaritzan**

Transgenikoak eta kloratutako haragiak platerean

Akordioak merkatuak liberalizatuko ditu eta Europako Batasuneko eta Amerikako Estatu Batuetako arautegiak berdinduko ditu, Europako gizartearentzako desabantaila garbia. Adibidez, atea irekiko zaizkie transgenikoei, hormonekin tratatutako haragiei (ractopamina edo somatropina bovina) edo kloroz garbitutako oilaskoei. Produktu horiei EBk debekuak ezarri zizkien 80-90eko hamarkadan eta horiek bertan behera geratuko dira, Europar Batasuneko zuhertasun printzipioa ere deuseztatuz. Enpresa multinazionalen presioei jarraiki gainera, Europan osasuna, ingurumena eta kontsumitzaileak babesten dituzten neurriak ahulduko dira. Abeltzaintza sektoreak izango dira akordio honekin kaltetuenetarikoak; izan ere, abereak hazteko ereduak, animalien ongizatea, arautegi sanitarioak, eta ingurumen neurriak erabat ezberdinak baitira han eta hemen.

Berme sanitariorik gabe

Abeltzaintza ekoizpenean Europako Batasuneko bete beharreko arautegi sanitarioak AEBetan ezartzen direnak baino askoz zorrotzagoak dira. Europan animalien osasun tratamenduak arautzen dira, ustategietan egokitzapena, elikadura eta ura, kate osoaren trazabilitatearekin batera. AEBetan transgeniko, hormona, botika eta abar erabiltzeaz gain, ondoren haragiak desinfektatzeko kloroak erabiltzen dituzte elikagaietan hondakinak utziz. Ondorioz, ekoizterakoan ez dira behar beste osasun arau ezartzen, hau da, berme sanitarioak desagerraraziko ditu.

Haziak

Jabetza Intelektualaren Eskubideak ere ezberdinak dira. AEBetan, esaterako, patenteak arautzen du hazien merkatua, EBn erregistroak aukera ematen du bestelako hazi motak sortu ahal izateko. TTIPak merkatuko arauak aldatuz, hazien eta produktu kimikoen multinazionalen alde egingo du, nekazariak bere haziak erabiltzeko eskubidea urratuz.

Jatorrizko Izendapenik ez

Europako Batasuneko nekazaritza produktuak eta elikadura kalitatea arautzeko sistemak ditu, horien artean: Jatorrizko Izendapen Babestua eta Adierazpen Geografiko Babestua. AEBk sistema horiek merkatuaren lehia askearen aurkako jotzen ditu eta marka pribatuak defendatzen ditu. Horrek EBn izendapen babestuak desagertzea eta modu pribatuan erabiltzeko aukera zabaltzeko arriskua dakar.